

# BEHAR HITZA LEIOA





# Behargintza Leioa

## Martxoan Behargintza gaztetu dugu

Ez, Agentziako langileak ez dira oso nagusiak. Batez bestekoa ez da ezta 45 urtera ere heltzen, baina pilak kargatu ditugu HAZILAN (Leioako Udalak eta Europako Gizarte Funtzak finantzatua) proiektuan parte hartu duten gazteekin.

Langabezia duden 20 eta 35 urte bitarteko gazte kualifikatuek parte hartu dute proiektu honetako lehen fasean: **AKTIBATU**. Fase hori taldekako eta banakako trebakuntza saioez osatuta egon da, lan merkatuaren egoeraz hausnartzeko eta esperientziak partekatzeko.

Euren iritzien arabera, esperientzia positiboa izan da beren burua hobeto ezagutu ahal izateko, beren indarguneak identifikatu eta sendotzeko, baita ahuleziak hobetzeko ere, Betiere xede bakarrera begira: **bere etorkizuneko CV eraiki**.

Gogorra da ikustea zelan, hain prestatuta dagoen belaunaldi batek, hizkuntzak, masterrak eta titulazioak dituenak, aurre egin behar dion oso geldi dagoen merkatuaren errealitateari. Baina AKTIBATU fase honi esker, motibatu egin dira eta errepikatu egin dute Estatu Batuetako hauteskundeetan hainbeste entzun den lelo hori: "Yes we can"

### Gaurtik aurrera, zer?

Hilaren 15 eta 17an, pertsona horiei elkarrizketak egin dizkiegu, eta denek garbi zuten arren beren helburua laneratzea zela, denek ez zekiten zelan jarraitu AKTIBATU programarekin, hiru aukera baitzuten.

Alde batetik, **praktikak** enpresetan 3 edo 6 hilabetez. KOKATU.

Bestetik, **prestakuntza lanpostuan bertan**, 300 edo 600 ordu, betekizun konkretu bateko gaitasun teknikoak ikasteari begira. LANEKIN.

Eta azkenik, TALENTU IHESA. Prestakuntzako 200 ordu **proiektu zehatzak garatzeko** 150 orduz. Eta zertan prestatu?

Behargintzan, bi prestakuntza programa ireki dugu:

- [Lehia-zaintza - adimena](#)
- [Salmenta eta Marketin estrategia](#)

Zaila da jakitea zein izan daitekeen erabilgarrien, azkenean, kontratu bat eskuratu ahal izateko, baina horietako edozein aukeratuta, gazteak ziur egon daitezke ondoan izango gaituztela, laguntzeko prest.

Animo. Zuekin gaude

## Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa  
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41  
[www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net)  
[behargintza@leioa.net](mailto:behargintza@leioa.net)

 [@LeioaBG](#)  [Leioako Behargintza](#)

### SAILAK:

**Orientazioa**  
[behargintza.orientazioa@leioa.net](mailto:behargintza.orientazioa@leioa.net)

**Prestakuntza**  
[behargintza.enplegua@leioa.net](mailto:behargintza.enplegua@leioa.net)

**Enpresa**  
[behargintza.enpresa@leioa.net](mailto:behargintza.enpresa@leioa.net)

**Ekintzailtza**  
[behargintza.ekintzaile@leioa.net](mailto:behargintza.ekintzaile@leioa.net)

## MERKATARITZAKO SALTOKIAK MODERNIZATZEKO 2016ko LAGUNTZA-PROGRAMA

### EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

- **Xedea:** EAEko merkataritzako saltokien modernizazioa sustatzea.
- **Onuradunak:** Negozio-bolumenaren aldetik, jarduera nagusia merkataritza duten enpresa ertain eta txikiak, betiere eskabidea aurkezteko orduan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, urtebete lehenagotik, gutxienez, alta hartu badute.
- **Diruz lagun daitezkeen inbertsioak:**
  - A) Altzariak, ekipamenduak, lokala eta kanpoko nahiz barruko elementuak eraberritzea eta eguneratzea.** Onartzen den gutxieneko inbertsioa 3.000 eurokoa izango da. Ez da inolaz ere merkataritza-lokalik ezta garraiorako elementurik erostea diruz lagunduko. Leasing edo renting bidez ekipamendua lortzea ere ez da diruz lagunduko. Itzuli beharrik gabe ematen den kopurua diruz lagun daitezkeen inbertsioaren % 15koa da.
  - B) Salgaietako balantza elektronikoak, informatika-ekipoak, aplikazioak eta horien osagarriak,** betiere merkataritza-prozesuen barruan integraturik badaude edo enpresa-kudeaketarako badira. Inbertsioa, gutxienez, 900 eurokoa izango da. Itzuli beharrik gabe ematen den kopurua diruz lagun daitezkeen inbertsioaren % 20koa da.
- **Diru-laguntzaren zenbatekoa:** diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoak ez du 12.000 euroko zenbatekoa gaindituko saltoki eta urte bakoitzeko. Aurreko laguntzen ehunekoak handitu egingo dira saltokiak hauetako baldintzaren bat betetzen badu:
  - % 5 gehiago baldin eta eskaera egunean saltokia Erregistroan inskribatutako merkataritza-elkarteren bateko kide bada.
  - % 2 gehiago UNE 175001-1 ziurtagiria izanez gero edo "Saltokitik Enpresara" programan egonez gero.
  - % 3 gehiago bitarteko bikaintasun-ziurtagiririk baldin badu.
  - % 5 gehiago inbertsioa kudeaketa-softwarea egiten bada.
  - Beste %5 saltokiaren nagusiak, edo gutxienez, hango langileren batek hezkuntza arautuko tituluren bat, merkataritza sektorearekin lotua (marketina, salmentak...), duela egiaztatzen badu.
  - % 2 gehiago saltokia Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko Erakunde Laguntzailea baldin bada.
  - % 5 gehiago enpresariak "Berriz Enpresa" transmisio programari heldu badio.
- **Inbertsioaren baldintzak:** diruz lagunduko dira 2015eko irailaren 16tik eskaerak egiteko epea bukatu arte egindako inbertsioak. Elementu berriak izan beharko dute, enpresan gutxienez 3 urtetan iraun, hirugarren batzuei ez laga, enpresak berak egin gabeak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan eginak.
- **Eskaerak egiteko epea:** 2016ko uztailaren 15era arte edo funtsak agortu arte.

*Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak aurkezteko, bide telematikoak erabili daitezke, edo aurrez aurre aurkeztu Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lurralde-ordezkaritzan – proiektua non egingo den, lurralde historiko hartan–, Eusko Jaurlaritzaren Herriarrei Laguntzeko Bulegoetan (Zuzenean), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako tokietan.*

*Eskabidea eskuratzea eta betetzea honako egoitza elektronikoa honen bidez bakarrik egin ahal izango da: <http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/>*

**Edozein informazio behar baduzu, jarri harremanetan Behargintza Leioarekin:  
94.400.41.95 telefono zenbakian edo [merkataritza@leioa.net](mailto:merkataritza@leioa.net) helbidean**

## Patenteei buruzko Lege berria

Industria jabegoaren babesa ezinbestekoa da enpresen lehiakortasunerako, barne hartzen baititu beren berrikuntza eta merkataritza jarduerak, modu eskusiboan identifikatuz merkaturan eskaintzen diren produktu eta zerbitzuak.

Estatuko eta nazioarteko merkatuetan enpresak garatu ahal izateko oso garrantzitsua da industria jabegoa, eta patenteen bidezko jabegoaren babesa ibilbide luzearen emaitza da.



**Oficina Española  
de Patentes y Marcas**

Patenteen sistema indartzeko, uztailaren **24ko patenteei buruzko 24/2015 Lege berria** argitaratu da eta **2017ko apirilaren 1ean indarrean sartuko da**. Ordura arte, patentei buruzko 11/1986 Legea indarrean jarraitzen da. Hala ere, onartuta dauden lege aldaketak aurreikusteak garrantzia handia dauka.

Industria jabegoaren modalitate desberdinak erregistratu eta emateko ardura duen erakunde publikoaren iritziz, hau da, Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren (OEPM) ustez, lege berri honen helburua da araudi espainiarra nazioarteko araudiaren mailan jartzea eta patenteen sistema egonkortzea.

Patenteen Erregistroan izena ematearekin, titularra legitimatuta egongo da bere eskubideak defendatzeko legeak aurreikusten dituen ekintzak martxan jartzeko. Horrela, berrikuntzaren defentsa lortzen da, zalantzarik gabe.

Galbaian enpresaren zuzendaria den Ismael Igartuaren ustez, hauek dira legeak dakartzan aldaketarik garrantzitsuenak:

- Derrigorrezko izen-azterketa ezartzen du
- Patenteen Eskubideari buruzko Tratatura (PLT) egokitzeko formazko baldintzak errazten ditu
- Europako patenteen sisteman oinarritutako aldaketak barne hartzen ditu (patentagarritasuna, IET zerga hasieratik ordaintzea, eta abar)
- Erabilgarritasun ereduan, nobedade baldintza, babes daitezkeen asmakizun motak eta egintzak burutzeko baldintzak aldatzen ditu
- Langileen asmakizunen erregimena argitzen du
- Behin onartuta, titularrak bere patentearen irismena mugatu ahalko du, bai bide administratiboan bai bide judizialean ere.
- Patente eta Marken Espainiako Bulegoa arbitraje eta bitartekaritza organoa izango da jabego industrialarekin lotutako gatazketan.
- Ekintzaile jakin batzuentzat %50 murrizten da eskaera, bilaketa eta azterketa tasa (186.art.)
- Unibertsitate publikoentzat %50eko hobaria ezartzen da, eta %100ekoa benetako ustiaketa ekonomiko eraginkorra egiaztatzen bada (hamargarren xedapen gehigarria)..

## TXERTATU MERKATUAN:

### PROYECTO DE INCORPORACION LABORAL PARA JOVENES DE LEIOA



Gaur, **Txertatu Merkatuan** egitasmoa aurkeztu nahi dizuegu, 2014-2020 Gazte Enpleguko Programa Operatiboaren barruan garatuko dena, Europako Gizarte Funtsak kofinantzatuta, eta BEHARGINTZA LEIOAK abian jarriko duena 2016an zehar, 2018ra arte.

Hauek dira parte hartzeko baldintzak:

- 16-30 urte edukitzea.
- Gazte Bermeko Sistema Nazionalean inskribatuta egotea.
- Prestakuntza berezirik ez edukitzea edo erdi mailako gradurik gainditu ez izana.
- Izena ematen den unean, ikasten edo lanean ez egotea

Lan munduan txertatzeko prozesuari begirako jarduerak bi ibilbide sekuentziatu izango dituzte:

1. **Egokitu Programa:** proiekturako sarrera da partaide guztientzat. Enplegagarritasuneko diagnostiko indibiduala lantzen da, alde batetik, eta bestetik, talde ekintzak egiten dira, ondoren, hurrengo programara pasatzeko.
2. **Trebatu Programa:** honako baliabide hauek eskaintzen dizkie partaideei:
  - Tailer semiproduktiboak.
  - Gaitasun teknikoak ikasteko tailerrak.
  - Berrikuntza sozialeko jardueretarako trebakuntza tailerrak.



## Prestakuntzako Espezialitateak

Prestakuntzako Espezialitateen Estatuko Katalogoa 395/2007 Errege Dekretua (Enplegurako Lanbide Heziketako azpisistema arautzen du) eta martxoaren 22ko 4/2015 Errege Lege-dekretua oinarri hartuta garatu da; lege-dekretu hori Enplegurako lan-esparruko Lanbide Heziketa premiaz eraldatzeari buruzkoa da.

Bada, katalogo hori osatzen duten prestakuntzako espezialitateak CNCPan zehaztutako 26 familia profesionalen barruan sartzen dira. Era berean, katalogoan prestakuntza osagarria edo zeharkakoa ere sartzen da.

**Hauxe ulertzen da prestakuntzako espezialitate esaten denean: eduki, gaitasun profesional eta zehaztasun tekniko batzuen multzoa, zenbait lan-jarduerarekin lotuta daudenak, guztiak ere ekoizpen-prozesuaren fase jakin baten barruan sartuak.**

Bi prestakuntzako espezialitate mota daude:

- **"Espezialitate egiaztagarriak"** katalogoan jasotako prestakuntzako espezialitateei buruzkoak dira, baina profesionaltasun-egiaztagiri bati lotuak daudenak. (2008. urteko abuztutik argitaratutako errege-dekretuak).
- **"Inskribatutako espezialitateak"** katalogoko prestakuntzako gainontzeko espezialitateei buruzkoak dira, baina profesionaltasun-egiaztagiriei lotu gabeak.

Prestakuntzako espezialitateen euskal katalogoak bere baitan hartzen du estatuko katalogoa, eta prestakuntzako beste espezialitate batzuk eransten dizkio, enpleguaren arloan garrantzi berezia dutenak Euskal Autonomia Erkidegoana.

<http://www.lanbide.euskadi.eus/informazioa/prestakuntzako-espezialitateen/y94-formacio/eu/>

# Agenda

## Apirila:

Ekitaldia: Inbound Marketing: bideratu emaitzetara marketin digitaleko zure ekintza guztiak

Lekua: Zamudio. Bizkaia

Eguna: 2016/05/04

Ikastaroa: Egokitu zure enpresa eta zure weba DBLO eta IGMEZL legetara (II)

Lekua: Bilbo. Bizkaia

Eguna: 2016/04/06





# Dirulaguntzak

**2016. ekitaldian** ekodiseinu proiektuak egiteko laguntzen deialdia. [Buletinerako Sarbidea](#)

**AGINDUA, 2016ko otsailaren 26koa**, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, enpresa txiki eta ertainei, banako esperesaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programaren lehenengo deialdia argitara emateko dena. Programa hori otsailaren 16ko 21/2016 Dekretuan dago araututa. [Buletinerako Sarbidea](#)

**EBAZPENA, 2016ko martxoaren 2koa**, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programan ezarritako diru-laguntzak 2016ko ekitaldian emateko deialdia. [Buletinerako Sarbidea](#)



# Elkarrizketa

## ● TIPOGRAFIKA

**A partir del 1 de mayo:**

c/ Estartetxe nº 5 (Edificio Ikea), of. 217

[www.tipografika.com](http://www.tipografika.com) | [tipografika@tipografika.com](mailto:tipografika@tipografika.com)

**Gaur berriro topatzen gara Tipografikarekin, Leioan diseinu grafikoa eta webguneak garatzen dituen estudioa. Hilabete honetan seigarren urtea betetzen du gure udalerrian.**

**Tipografikak urte batzuetako ibilbidea egin du jadanik, zein da egiten duzuen azterketa?**

Egia bada ere azken urte hauek gogorrak izan direla mundu guztiarentzat, eta gu ez gara salbuespena, azterketa, orokorrean, nahiko ona da. Egoera zailak izan dira, baina, urratsez urrats, hastea lortu dugu, enpresa moduan finkatzea eta oinarri on batzuk jartzea proiektuak hazten jarrai dezala etorkizunean.

**Tipografikak Behargintzak eman dituen hainbat prestakuntza proiektuetan parte hartu du. Zein proiektutan parte hartu duzue? Zeintzuk ziren zuen helburuak hasieran? Zuen helburuak bete dituzue?**

Iaz Saltzen Lagunduz programan parte hartu genuen; saltzeko orduan gure gaitasuna garatzen ikasteko prestakuntza-tailerra izan zen. Ikastaro honek enpresa moduan gauza asko aldatzera bultzatu gintuen eta gure negozio eredua berritzera ere bai.

Aurten Zaintza Teknologikoari buruzko beste tailer bat amaitu berri dugu, non lehen eskuz egiten genituen gauza batzuk mekanizatzen ikasi dugun. Beste alde batetik, Behargintzan formakuntza hartu ostean praktikak egitera etorriko den pertsona bat gurekin lanean hasteko dago.

Helburu nagusia beti da berbera: hobetzea, bai gure gaitasun pertsonaletan, bai enpresa gaitasunetan, egunetik egunera

eraginkorragoak izateko eta hobeto funtzionatzeko. Argi dago hori lortzeko edozein ikaskuntza ona dela, baina, horrez gain, irakasten duena zeure behar zehatzez kezkatzen bada, zer esanik ez askoz errazagoa dela helburuak erdiestea.

**Nola uste duzu lagun diezaioketela Tipografikaren ibilbideari Behargintzan hartzen ari zareten laguntzek eta ezagupenek? Zer ekartzen dizuete?**

Kontuan hartzen badugu Tipografika martxan jarri genuenean bazkideetako inork ez zuela aurreko eskarmenturik enpresa-kudeaketan, esan daiteke egunez egun ikasten dugula. Hori oso erronka interesgarria da, baina, batzuetan gabezia garrantzitsuak genituela ere aurkitu dugu, hau ere egia da, eta konpondu behar izan ditugu ongi bukatzeko. Egoera horietan Behargintzaren sostengua funtsezkoa izan da. Batez ere, zalantza bat sortzen zaigunean ematen diguten laguntza eta aholkularitzagatik. Udal zerbitzua denez, oso hurbilak dira eta sentsibilitate handia dute herriko enpresen beharrek, eta hori beti da ona erantzun bat emateko garaian.

**Eta amaitzeko, zeintzuk dira zuen planak etorkizunerako?, eskatu duzue nahiren bat betetzea datorren urteko urtebetetzerako?**

Hurbilekoena bulego aldatzea da; izan ere, **maiatzaren 1etik aurrera Ikea Eraikinean egongo gara, Estartetxe kalean, 5, 217 bulegoan (Bulebarraren aurrean)**. Hortik aurrera, lanean jarraitzen dugu gaur egun gorantz ari diren elkarreragineko argitalpen digitaletan ardaztutako lan ildoan. Nahiak? Lana, lana, lana. Hori guztia badaukagu, gainerakoa berez etorriko da!

● TIPOGRAFIKA



